

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

NKGIk 107.000 eurotako diru-laguntza eman dio Nafarroako Gazteriaren Kontseiluari, bere jarduerak garatzeko

Bi instituzioek berriro dute elkarlanerako hitzarmena, gazteen artean asoziazionismoa sustatu eta indartzeko, beste helburu batzuen artean

Asteartea, 2018.eko martxoak 20

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren bitartez, 107.000 euroekin babestuko du (iaz baino %7 gehiago) Nafarroako Gazteriaren Kontseilua (CJN-NGK). CJN-NGK-k, zehazki, bere jardueren garapena ordaintzera eta horietan parte hartuko duten gazteen garraioa finantzatzera zuzenduko du diru-laguntza, beste gastu batzuen artean (administrazio-funtzionamendua, mantentze-lanak eta langile-gastuak, esaterako).



Miguel Garrido, Rubén Goñi eta Adela González, hitzarmena sinatu ondoren.

NKGIko zuzendari gerentea den Rubén Goñik eta Gazteriaren Kontseiluko presidentea den Miguel Garridok gaur goizean berriro dute elkarlanerako hitzarmena, zeinaren bitartez bi instituzioek hartzen duten gazteen artean asoziazionismoa sustatu eta bultzatzeko konpromisoa, eta haien partaidetza demokratikoa eta erantzukizun hiritarra indartzeko konpromisoa.

CJN-NGK zuzenbide publikoko erakundea da, izaera desberdinetako 61 gazte-erakundek osatua: aisialdia eta denbora libre, politika, kultura, sindikatuak... Erakundeen, gazteen eta Nafarroako Gobernuaren artean zubi gisa aritzeaz gain, Nafarroako gaztedia osoaren eta gazte-erakundeen ordezkari izatea da bere funtzioetako bat, eta baita gazteentzako erreferentzia-espazio izatea, eragiten dieten gai guztien inguruan: berdintasuna, enplegua hezkuntza, etxebizitza, etab.

Urte honetarako planteatu diren helburuen artean daude, besteak beste: gazteen kolektibora irisgarritasun handiagoa ezartzea, nonahi bizi direla; berdintasuna eta parekidetasuna bultzatzea eremu guztietan; eta, baita, gazteen partaidetza eta inplikazio zuzena sustatzea erakundearen erabakietan, berau osatzen duten lantalde desberdinen bitartez.